KURUTZIAGA IKASTOLA

BIZITZEKO HEZI

Guraso ordezkariak: *Familien aho-belarri*

Jantokia: *produktu ekologikoak eta bertokoak*

Kirola: *3K programan bidea eginez*

AURKIBIDEA

4 | Ikastola eta izaera kooperatiboa

6 | Guraso ordezkariak

8 | Jantokia

10 | Bazkalostea

12 | HH

14 | LH

16 | DBH

18 | Kirola

20 | Ibilaldia 2020

21 | Ikastolen Elkartea

22 | Gutarrak

Argazkiak: Lehior Elorriaga

Kurutziaga Ikastola Galtzareta kalea, 13
Durango (Bizkaia)
Tel: 94 620 08 22
www.kurutziagaikastola.eus

KURUTZIAGA IKASTOLA
BIZITZEKO HEZI

Iazko urtean, Kurutziagako datozen lau bost urteetarako lan ildo nagusiak ezarri genituen. Burututako hausnarketa estrategikoak gure izaera Durangon errotzeko bidea markatu digu eta horretan aritzeko lan ildoak definitu ditugu: erreferentzialtasuna izatea Durangon eta Durangaldean, kalitatezko berrikuntza pedagogikoa bultzatzea, langileria prestatzea eta konprometitua izatea, behar pedagogikoei erantzuteko inbertsioekin jarraitzea eta kudeaketa aurreratuaren ereduan sartuta egotea.

Hitz potolo eta erronka handiak izan arren, hau guztia ezinezkoa izango litzateke partaidetzako guraso kooperatiba bat bultzatzen ez badugu, partaidetza aktiboa eta inplikatua izango duena gure seme-alaben hezkuntzan azken batean.

Aurtengo erronka hemendik hasi dugu, gure izaera kooperatiboak eta balioak indarrean jarriz eta ikastolako Artezkaritza familiei hurbilduz. Aldizkari hau argitaratu orduko Guraso Kontseilua sortuta izatea gura genuen, eta familiekin egindako bilera pedagogikoen ostean jasotako erantzuna harro egoteko modukoa izan da. Ibilbide bati ekin diogu eta badago zeregina, baina gure izaerak, Guraso Kooperatibak, bidea ondo gauzatzen lagundu behar digu.

Ezin dugu sarrera hau amaitu irakasleei eskerrak eman barik bilera pedagogikoetan eskaini dizkiguten tarteengatik.

Mila esker denoi

Alex Ortuzar

Kooperatibako Presidentea

KANPO ESPAZIOA: BERDINTASUNA ETA NATURA

Iaz estreinatu genuen ikastolako kanpo espazio berria. Ikasleen ekarpenei eskerrak, euren ametsetako jolastokia sortu genuen. Mendiak, errekatxoa, zuhaitzak... natura ikastolan integratu dugu. Lau urteko prozesu parte-hartzaileak jolas-eremu parekidea eta naturari lotua sortu du. Kirolera bideratutako zelaiak erdigunetik kenduta, espazio zentralak jarduera anitzetara bideratu ditugu. Hartara, hezkidetza erdigunera ekarri dugu.

IKASTOLAREN IZAERA KOOPERATIBOA

“Ikastola gai da bere etorkizuna definitzeko, erabakietan modu aktiboan parte hartuz”

Ikastolako egunerokoan dihardutenek erraz erabiltzen dituzte kooperatiba izaerari eta bere antolaketari dagozkien berba teknikoak: artezkaritza, bazkideak, kudeaketa demokratikoa... Hala ere, kontuan izan behar da ikastolako hezkuntza komunitatera hurreratzen diren familietako kideek beharbada ez dutela kultura hau ezagutuko. Urko Rodriguez zuzendariak eta Alex Ortuzar kooperatibako presidenteak kooperatiba izaeraren antolaketaren oinarriak argituko dituzte.

Kurutziaga ikastola kooperatiba bat da. Zer suposatzen du bazkide diren gurasoentzat?

Kurutziaga ikastola hezkuntza zentroa den heinean eta kooperatiba moduan eratuta dagoen neurrian, Guraso Kooperatiba dela esaten dugu. Bazkideak familietako ordezkariak dira. Beste era batera esanda, Kurutziagako familiak dira ikastolaren jabe. Bazkide bakoitzak bere jabetza parte txiki bat izango luke. Gainera, Hezkuntza zentroa izanik eta irabaziasmorik gabeko erakundea izanik, Kurutziaga ikastolari herri izaera aitortzen zaio. Teknikoki Hezkuntza-zentro publikoa dela esan daiteke. Aipatutako ezaugarriak ez balitu (irabazteko asmorik gabekoa eta kooperatiba), ez luke aitortza hau izango.

Zeintzuk dira onurak?

Ikastolaren Hezkuntza Proiektua aurrera eramateko, balio kooperatiboetan oinarritzen garela da onura nagusia. Familiak elkar lagunduz, erantzukizunak hartuz, modu demokratikoan antolatuz ikastolako Batzar Nagusien bidez edota lankidetza bidez, proiektu komun baten alde lan eginez, Ikastolako Hezkuntza Proiektua aurrera ateratzen dugu. Helburua herritar euskaldun, konpetente eta konprometituak aurrera ateratzea da.

Zeintzuk dira antolaketa horren ezaugarriak?

Alde batetik, autonomia eta independentzia nabarmendu daitezke. Legedi baten barruan bai, baina ikastola gai da bere erabaki marko propioa izateko, muga administratiboetatik haratago. Bestela, nola ulertu Kurutziagak Iparraldeko Seaska eta Nafarroako ikastolekin batera proiektu komuna lantzea? Bestetik, lankidetza eta komunitatearekiko interesa ere garrantzitsuak dira guretzat. Esate baterako, Ibilaldiak eta horrelako ekintzek guraso, lankide eta ikasleak batzen dituzte ikastolako proiektu berriak egiteko. Beste adibide bat ematearren, beste ikastolekin batera, bost ikastola gai izan ginen Ibaizabal Ikastola sortu eta Batxilergoa eta Lanbide Heziketa euskaraz eskaintzeko. Kolektibo batek herri euskaldun batean bizitzeko duen nahiari erantzuten dio lankidetza honek.

Bazkideek zelan parte hartzen dute kooperatiban?

Ikastola gai da bere etorkizuna definitzeko, erabakietan modu aktiboan parte hartuz. Gainera, ikastolako artezkaritzako kideak modu demokratikoan hautatzen dira Batzar Nagusian, ikastolako kudeaketa aurrera eramateko. Familiek ikastolaren etorkizuna erabakitzeko gaitasuna dute boto bidez. Kooperatiba lez, ikastolak badauka gizartean eragiteko eta hau aldatzeko gaitasuna. Hau da, kooperatiben, demokraziaren, autokudeaketaren eta elkartasunaren printzipioetan oinarrituta, herrian eta herrigintzan eragiteko gaitasuna dauka.

Artezkaritzako kideak

GURASO ORDEZKARIAK

Iazko ikasturtean burututako Plan Estrategikoaren hausnarketan, ikastolak hobetu beharreko atalean ateratako puntuetako bat partaidetza eta ekintzailetasuna izan zen. Horren haritik, Batzar Nagusiaren babesagaz, guraso ordezkari figuraren aktibazioa martxan jartzeko konpromisoa hartu zuen ikastolako artezkaritzak.

Beste ikastoletako eredu batzuk aztertuz, asmo honen berri eman zen bilera pedagogiko guztietan, batez ere helburu nagusi bigaz. Alde batetik, gurasoen partaidetza aktiboa sustatzea, ikastolak antolatzen dituen ekintzetan gurasoak parte hartzera animatzeko. Bestetik, ditugun erabaki organoen komunikazioa hobeto antolatu eta bideratzea izan da helburua, gurasoek izan ditzaketen kezka eta ekarpenak jasoz.

Hasierako emaitza ezin hobea izan da, ia maila guztietan izena eman duten familiek euren burua aurkeztu dutelako. Beraz, badakigu familiak lanerako prest daudela. Orain ikastola guztia aktibatzeko lana hartu behar dugu, hobetzeko ekarpenak eginez eta ekintzetan parte hartuz.

Batutako maila guztietako guraso ordezkarien taldeari GURASO KONTSEILUA deitu zaio eta bertako partaideak GURASO ORDEZKARI legez izendatu dira.

Guraso ordezkariek eginkizun nagusi bi izango dituzte:

- Mailako beste familien aho-belarri izatea, dituzten kexa eta iradokizunak jasoz.
- Familiei dagozkien betebeharren antolaketa koordinatzea.

Gurasoren batek kezka edo arduraren bat duenean, nola jokatu behar du? Prozedura erraza izango da: maila bakoitzari posta elektroniko bat esleitu zaio (2019ko azaroaren 21eko oharrean jakinarazi zen) eta mailako guraso ordezkariak jasoko du eskaria. Gaiak duen garrantziaren arabera eta ikastolako artezkaritzaren balorazioaren arabera, dagokion organoan landuko da gaia. Ondoren, erantzun bat emango zaio eskatzaileari dagokion guraso ordezkariaren bitartez.

Esan beharrik ez dago eskariak ezin direla nahi partikularrei erantzuteko izan. Ikuspuntu orokorra izan behar dute, ikastolakoak edo dagokion mailakoak.

Ekintzen parte hartzeari dagokionez, aldiz, urtean ekintza bat planteatu da. Izan daiteke mailaren bati ezer ez tokatzea ikasturte zehatz batean. Baina norberaren mailan eginbeharren bat badago, guraso ordezkariaren bitartez jakingo duzu.

Hauek dira martxan jarri nahi diren ekintzak. Ibilbide berri bati ekin diogu, eta asmatuko dugulakoan gaude.

MAILA	FAMILIA(k)	EMAILA
HH 1	Endika Gandarias	hh1ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
HH 2	Hiart Ormaza Solas, Estitxu Garai eta Gorka Ostolaza	hh2ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
HH 3	Aitziber Gil eta Imanol Eskota	hh3ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
HH 4	Isabel Macias	hh4ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
HH 5	Eider Gallastegi eta Oihana Riesco	hh5ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
LH 1	Pilar Rosado eta Ines Etxegibel	lh1ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
LH 2	Iban Ibañez, Gotzone Merino eta Amaia Garitano	lh2ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
LH 3	Mirentxu Lopez	lh3ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
LH 4	Itziar Egia (Bolondres)	lh4ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
LH 5	Amaia Zarrabeitia eta Leire Huerta	lh5ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
LH 6	Nahia Pagonabarraga (Olga eta Estaniz)	lh6ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
DBH 1	Bidane Zuazo (Iñaki Eta Ainhoa)	dbh1ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
DBH 2	Aitor González, Ainhoa Bereikua eta Iratxe Ugalde Begoña	dbh2ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
DBH 3	Zozketa bidez	dbh3ordezkaria@kurutziagaikastola.eus
DBH 4	Zozketa bidez	dbh4ordezkaria@kurutziagaikastola.eus

ANTOLATZAILE	EKINTZA	DATA
2 urte		
3 urte		
4 urte	Ibilaldia	Maiatzak 31
5 urte	Gaztañerre	Urtarrilak 18
LH 1		
LH 2	Ibilaldia	Maiatzak 31
LH 3		
LH 4	Santa Ageda	Otsaila
LH 5		
LH 6	Ibilaldia	Maiatzak 31

ANTOLATZAILE	EKINTZA	DATA
DBH 1		
DBH 2	Ikastola jaia	Ekainak 12
DBH 3	Santa Ageda	Otsaila
DBH 4		
*** AUZOLANA*	Zehazteke	

JANTOKIA

“Dietaren %55 produktu ekologikoa edo hemengoa da”

Claudia Aperribai Etxebarria nutrizionista da ikastolako jantokiko arduraduna. 28 langileko taldea koordinatzeaz gainera, hileko menua diseinatzen du. Ikastolan kontsumitzen diren produktuak bertakoak, sasoikoak eta freskoak izatea du helburu. Apurka-apurka aurrerapausoak ematen gabiltzala dio.

Zeintzuk dira ikastolako dietaren oinarriak?

Ume eta gazteei elikadura osasungarria eskaintzea da helburua. Horretarako, lehenengo platerean barazkiak eta lekaleak gailendu daitezen ahalegintzen gara. Bigarren platerean, okela, arraina zein arrautzak pieza osoetan egon daitezen saiatzen gara, hau da, aurretik prestatutakoak ez izatea. Postrerako, astean lau egunez fruta jartzen dugu, eta astean behin jogurta. Etxeko postrea prestatzen dugunean, aste horretan jogurtaren ordez eskaintzen dugu.

Zelan zaintzen duzue elikagaien kalitatea?

Jantokian kontsumitzen ditugun barazkiak bertako baserritar bati eskatzen dizkiogu. Dilistak, pasta zein arroza ekologikoak dira. Beraz, dietaren %55 produktu ekologikoa edo hemengoa da. Gainera, Auzolagunen barruan gaudenez, eskaintzen ditugun produktuek badute kalitate bermea.

Jaten den guztia bertan prestatzen da?

Bai, jaten den guztia bertan ekoiztutakoa da. Gainera, hilean behin San Jakoboak edo kroketak egiten ditugu. Lan asko ematen duen gauza bat da, baina ahaleginak merezi du.

Hemengo ortuariez gainera, orain bertako okela eta arraina prestatzen hasi zarete.

Bertako eta sasoiko geroago eta produktu gehiago prestatzea da helburua. Hori da markatuta dugun irizpidea. Arrainaren kasuan, hilean behin Ondarroatik arrain freskoa ekartzen hasi ginen. Orain, hilean birritan ekartzen dugu. Okelari dagokionez, hilean behin bertako ekoizleen okela ekartzen dugu, solomoa, txahalkia zein oilaskoa.

Ikastolako sukaldean prestatutako postreak egiten dituzue?

Probak egitea eta berritzea gustatzen zaigu. Hilean behin gazta-tarta, arroz-pastela eta natillak prestatzen ditugu. Laster txokolatezko natilla egiten hasiko gara. Ea gozoa irtetzen zaigun. Ekainean fruta irabiaki bat egin genuen. Hori bai, apur bat garratza irten zitzaigun.

Zenbat ume eta gazteri ematen diezue jaten?

Guztira, egunean 820 menu inguru ematen ditugu. Sukaldari bik eta laguntzaile batek prestatzen dute janaria. Horri gehitu behar zaio jantokian eta bazkalostean zaintza lanak egiten dituen taldea. Guztira, 28 lagun gara.

Zeintzuk dira zure lanaren funtzioak?

Kalitate arloa kudeatzea, menua Mikel sukaldariagaz adostea, dieta bereziak lantzea... Gainera, begirale guztien lana kudeatzen dut.

Zelan lantzen dituzue dieta bereziak dituzten umeen menuak?

Produktu freskoak eta osoak lantzen ditugunez, errazagoa da trazak saihestea. Aurretik kozinatutako produktu askok fruitu lehorrak, arrautza edo esnea izan ditzakete. Guk ez daukagu susmagarria izan daitekeen produkturik. Gure kasuan, lehengaiekin lan egiten dugunez, errazagoa da menu bereziak egitea. Alergien arloan adi egon behar dugu beti. Bestalde, baditugu okelarik jaten ez duten umeak. Horientzat ahalegin berezia egiten dugu. Sojazko hanburgesak, espinakazko haragi-bolak, boloñesa begetala, tomate beteak... prestatzen ditugu.

Hemendik aurrera, zeintzuk dira erronkak?

Aspaldi abiatu genuen bideak bere fruituak eman ditu. Bertako eta sasoiko produktuak geroago eta gehiago kontsumitzen ari gara, eta bide horretan jarraitu behar dugu. Egun, menu begetariano gehiago jar daitezke, esaterako. Elikaduraren gaia lantzen duen guraso talde bat dago, eta euren eskarietako bat da. Abendutik, okelarik bako hiru egun ditugu.

Ortutik platerera

Durangaldeko baserritarrek ekoiztutako ortuariak prestazen dira ikastolan.

Bertako produktuak

Ikastolan jaten den arraina Ondarrutik ekartzen da hilean birritan.

Okela Euskal Herriko ustiapenetatik ekartzen da, Basatxerritik esate baterako.

BAZKALOSTEA

Badira hiru urte eguerdiko eskaintza integrala eskaintzen hasi ginena. Plan pilotu modura hasi zenak indarra hartu du eta eskaintza egonkortu egin da.

Beti egoten da zer hobetu, gauza guztiak bezala, baina urtean zehar egindako hausnarketek eta lanean ari den lantaldeak (ikastola, Berbaro eta Ausolan) laster batean doitu dute antolaketa, denen mesedetan.

Baina, nondik dator gaurko antolaketa?

Irakasle taldearen barne hausnarketari familien eskaria batzen zaion momentuan heltzen diogu Bazkalosteko tarte honen diseinu berriari. Eguerdiko tartea aisi eta atseden tartea izatea beharrezkoa ikusten genuen ikastolatik, eta egiten genuen eskaintza integral hau denentzat izan behar zen, bereizkeriarik barik. Printzipio bi ezarri genituen eguerdiko eskaintzari begira:

- Eguerdiko tarte hau atseden momentua izatea ikasleentzat. Eguerdiko tartea atseden eta aisialdi denbora modura ulertzen da ikastolatik. Hainbat ikastetxetan, eskola ordu gehigarriak eskaintzen dira. Guk, ordea, eguerdiko tarte hau ikasleen atseden tarte eta aisialdirako tarte lez ulertzen dugu. Horregatik ez da ikasketetarako eskaintza gehigarririk eskaintzen.

-Berdinen arteko desberdintasunik ez egotea. Gurasoen eskarietatik ulertu genuen “klase partikularrak” hartzen zituzten eta hartzen ez zituztenen artean ezberdintasunak sortzen genituela eskaintza gehigarriekin, eskola osagarri hauek zerbitzu gehigarri modura ordaindu behar zirelako. Beraz, aukera berdintasuna bultzatzeko asmoz, gehigarri hauek ikastolatik kanpora eskaintzen diren erakundeetara bideratu genituen. Ikastola barruan eguerdiko tartean eskaintzen dena jantokiaren zerbitzuagaz batera eskaintzen den zerbitzu integrala da, aisiari begirakoa, zabala eta adinari egokitzen dena, eta jantokiaren kuotaren barruan sartzen dena. Denentzat berdin.

Eskaintzaren oinarriak

- Aisialdi esparru askea eta hezigarria, adin tarte guztientzat eta elkarbizitza positiboa ahalbidetzen duena.
- Eskaintzan jarduera anitzak, kooperatiboak eta inklusiboak izatea.

ESKAINTZAREN ANTOLAKETA	
HH	HH harrera gunea eta HH 5 urteko gela
LH	Gune lasaia (Juul gela)
LH	Sormen eta adierazpen gunea (Batzar gela)
LH	Jolas eta Kirol gunea (Harmailetan)
DBH	Asanblada gunea (Biltegitxoa)
DBH	Kirol gunea (Jolas lekuko porlana)
DBH	Gune lasaia (Jolas lekuko trena)

Antolaketa honetan Ikastolarekin koordinazioan Berbaro Elkarteak eta Ausolan erakundeak parte hartzen dute. Ekimen honetan gidari diren hezitzaileak aisialdiko eta hezkuntza arloko prestaketa duten profesionalak dira, prestatuak eta prestuak!

HH

“Ikuspegi sortzaile eta aktiboa jarraitzen dugu”

Irakaslea, ikaslea, familia eta espazioaren arteko hartu-emana zaintzen dugu Haur Hezkuntzan. Haurraren heldutasun prozesuan bidelagunak gara. Gure geletan umearen garapena zaindu, babestu eta aberastuko duen hezkuntza eredua da.

Haurra da protagonista. Jolas librea eta desplazamendu askea eskaintzen diegu haurrei, euren interesen arabera askatasunez erabaki dezaten. Arlo emozionalari, imitazioari, saiakerari eta euren interesei lekua ematen diegu. Horretarako, irakasleak segurtasun afektiboa eta emozionala eskaintzen dio umeari, hurbiltasuna, gertutasuna eta disponibilitatea. Euren adierazpenak eta sentimenduak entzun, jaso eta sentikortasunez erantzun egokia emanez. Tutorearen begirada beharrean soilik, guztiena batzen da.

Hartu-eman horretan espazioak garrantzi handia du. Guretzat espazioa hezitzaile bat gehiago da. Espazioa, denbora eta materialak antolatzeko moduari berebiziko garrantzia ematen diogu. Estimulazio goiztiarra, jarduerak, kreatibitatea, arlo motorikoa...

Mugitzeko askatasuna

Lehenengo zikloan haurrak askatasunez mugitzen dira Haur Hezkuntzako espazioan.

Txokoen antolaketa

Bigarren zikloan eraikin berria dugu. Umeen interesen arabera gura duten txokoa aukeratzen dute.

Jolasak guk geuk eraikiz

Ikastolako mantenuko langileek zurezko trena eraiki dute HHko umeentzat.

Naturan esperimentatzen

Botinak jantzi eta kanpo espazioan naturagaz jolasteko aukera dugu. Bai ederra errekan plisti-plasta aritzea!

LH

Oihana Zubero

Lehen Hezkuntzan aldaketa sakonak planteatzen ari dira ikastolan. EKI material didaktikoaren ezarpenak, besteak beste, lan egiteko erak aldatu ditu, bai irakaslearentzat eta baita ikaslearentzat ere. Oihana Zubero LH etapako arduraduna da.

Urteak daramatzazue LHko metodologia berritzen. Zertan datza berrikuntza?

Gure lan egiteko eretan gure lana hobetzen lagunduko diguten aldaketak txertatzen ari gara. Horrela ulertzen dugu guk berrikuntza, eta hauxe egiten ari gara une honetan: gure egunerokotasuneko lan guztia hartu, aztertu eta hausnarketa egitera garamatzaten galdera batzuk egin geure buruari. Norantza joan gura dugu? Zer lortu gura dugu? Nola egin gura dugu? Hau ez da egun batetik bestera egiten den lana. Badakigu bidea luzea izango dela, baina horretan gabiltza.

Zergatik aldaketa?

LHn egoerari astindu bat emateko ideia ez da ezerezetik irten den bat-bateko zerbait izan. Badaramatzagu urte batzuk lanketa honetan, eta beste etapetako abaguneek (DBHn EKIren lanketak eta HHn emandako aldaketak, besteak beste) bat egiten dute tempusetan LHko erronkagaz. Azken lau urteetan, Gotzone Duñabeitiak gidaritza pedagogikoa hartu duen momentuan, ausardiaz heldu diogu gaiari. Etapa moduan figura pedagogiko horren beharrizana argi ikusten genuen, hiru etapen arteko beharrezko lotura egiten lagunduko digulako, gure jarduera eta lerro pedagogikoaren batasunean eragiteko. Egiten gabiltzan ibildibe horretan gure lana gidatuko duen lidergo pedagogikoa.

Familia askorentzat HH garrantzitsua da, ibilbide baten hasiera delako, eta DBH ere bai, etorkizunera begira jartzen direlako. Baina, tartean, LH dago, oinarri sendoak jartzeko sasoia.

Zelan lotzen dira hari horiek guztiak?

Zentro moduan ikuspegi orokor bat izatea garrantzitsua da. 0-16 urte arteko proiektu bat garela argi izan behar dugu. Etapa bakoitzean gure ikasleen ezaugarriak zeintzun diren eta zein puntutan dauden ezagutzea inportantea da. Ezaugarri, premia eta beharrizan horiek kontuan izanda, gure irakasteko moduak aberasten joan behar gara egunez egun. Etapa bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta, ziurrenik, familiek etapa bakoitzari gauza ezberdin bat eskatuko diote. Nire ustez, Haur Hezkuntza babesa eta konfiantza da. LHn babes eta konfiantza horren gainean oinarri sendoak eraikitzen hasten gara. Eta DBHn aurreko ezaugarriak barneratu baditugu, etorkizunerako bultzada ematea da asmoa.

LHn trantsizio momentu batean gaudela esan daiteke. Zein da une honetan atera daitekeen erradiografia?

Aldaketak egin ditugu. EKI laugarren mailara heldu da dagoeneko. Hartara, gure lan egiteko era eta irakaslearen figura gela barruan moldatu egin behar izan da. Lehenengo, bigarren eta hirugarren maileta aldaketak definitzen ari gara. Ez gaude material didaktiko zehatz baten zain. Argi ikusten dugu lan egiteko erek koherentzia izan behar dutela, bai gure etapa barruko sistemagaz eta baita HHtik datorren lan egiteko moduagaz ere. Ikasleen garapenerako ezaugarriak eta beharrizanak ezagututa, legeak ezartzen duen markoa aztertuta, gure curriculum proiektua eguneratzen eta garai berrira egokitzen ari gara, ipar bezala ikuspegi inklusiboa izanik.

“Ikusten ari garena da EKIk urrats bat gehiago ematen duela eta gelako aniztasunera gehiago gerturatzen dela”

Zein material erabiltzen da?

Euskarri didaktiko legez, laugarren, bosgarren eta seigarren mailan EKI erabiltzen dugu. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetan Txanelagaz jarraitzen dugu. Txanelagaz ibilbide luze bat dugu ikastolan, eta gure beharrizanetara egokitu dugu. Hau da, etekina atera diogu guk egokien ikusi dugun moduan. EKIgaz, berriz, beste fase batean gaude, materiala ezagutzen eta gureratu guran. Ikastolen Elkarteak eskaintzen dituen material horiek guztiak baliabide itzelak dira, baina norberak bere etxean aberastu behar ditu, gure beharrizanetara eta egiteko eretara ahalik eta ondoen egokituz.

Aldaketa hauek guztiek zein harrera izan dute familien aldetik? Gurasoek ulertu dute metodo aldaketa?

Ezjakintasunak beti sortzen du mesfidantza puntu bat. Zorionez, ikastolako familiek konfiantza erakusten dute irakasle taldearengan. Bestalde, ez da lehenengo aldia aldaketa batzuei aurre egin behar dieguna. Familia eta irakasleen artean konfiantza eta zintzotasuna ezinbestekoak dira. Orain arte izan ditugun aldaketen esperientziek oso emaitza onak izan dituzte, eta oraingoan ere horrela izango da. Ni ikastolako ikaslea nintzenean, proiektuetan lan egiten genuen. Irakasleek eurek sortzen zuten material didaktikoa. Harrezkero, ikastolen sorreratik, 50 urtean lan egiteko erak garaietara egokitzen lan handia egin izan da eta egiten da.

EKIgaz denbora bat daramazue. Orain arteko emaitzekin pozik zaudete?

Emaitzak bi ikuspuntutatik aztertu daitezke. Ikasleen eta irakasleen esperientziaren ikuspuntutik balorazio oso ona izan da. Arlo akademikoan, oraingoz, emaitzak onak dira. Ikusten ari garena da EKIk urrats bat gehiago ematen duela eta gelako aniztasunera gehiago gerturatzen dela. Honek ez du esan gura zikloa amaitu denik, ezta gutxiago ere. Gure irakasle taldea material didaktiko berri honen ezagutzan eta erabileran ahalduntzen dabil eta horrek gura dugun hobekuntzan aurrera egiten lagunduko digu, dudarik barik.

Gelako egunerokotasunean EKIk zein aldaketa suposatu du?

Ikasleen parte-hartzea eta autonomia gehiago bultzatzen da. Txanelan agertzen ziren proiektuei dagokienez, urrats bat gehiago ematen da. Txanelan ere ikasgaiak elkarren artean lotuta egon dira. Orain, lotura hori estutu egin da, gelan sartzen diren irakasle guztiak direlako diziplinarteko lanaren gidari. Ildo horretatik, irakasle taldea inoiz baino koordinatuagoa egon behar da ikasturte osoko programazioari begira. Horrek talde moduan heldutasunez lan egin behar izatera garamatza.

Orain, zeintzuk dira erronkak?

Gure lanari balio erantsiak ematen jarraitzea da erronka. Hezkuntzari dagokionez, ikastolok dugun berezitasunetako bat da hori. Orokorrean balio erantsiak diodanean, lanari, familienganako harremanari eta elkarlanari lotuta esan gura dut. Arlo indibidualean, ostera, ikasleak konfiantzagaz eta ikasteko gogoagaz egotea eta ikastolara pozik etortzen jarraitzea da erronka. 0-16 urtera arteko ibilbide luze horretan jarraitu dezatela hazten eta hezten ikastolan transmititu gura ditugun balio eta ezagutzekin hezkuntzako arlo guztietan. Hori guztia ezin daiteke ulertu gure egunerokotasunean ez bagara saiatzen geroago eta hobeak izaten. Nire lankide batek hauxe esaten zuen: "Ikastolok elitistak garen fama izan dugu. Nik ez dut ikastola elitista bat gura. Guztiontzako izango den eliteko ikastola gura dut". Aniztasunaren ikuspuntua duen bikaintasun horren barruan, gure hezkuntza proiektua, gure balioak, familienganako hurbiltasuna eta gure hobetzeko nahia daude.

DBH

Nekane Zubizarreta

"Dagoeneko urte batzuk pasatu dira EKIgaz, eta gure errealitatera ekarri dugula esango nuke"

DBHn EKI material didaktikoa erabiltzen da ikastolan. Irakasteko, ikasteko eta ebaluatzeko moduetan aldaketa handia suposatu du. Nekane Zubizarreta DBHko arduraduna da.

DBHn ebaluazioa aldatu duzue.

Aldatzeko lehenengo urratsak ematen hasi gara. Ikastolen elkarteak proposatzen duen "ebaluazio integrala" formakuntzan hasi gara aurten.

Zer lantzen da formakuntza horretan?

Formakuntza honen helburua ebaluazio hezigarrian sakontzea da. Lehenengo urratsa eta baldintza buletina aldatzea da, eta horretan ari gara buru-belarri. Honek kalifikazio eskala aldatzetik hasi (1-4 erabiliko da lehengo 1-10 ordez) eta Alexia aplikatiboaren prestaketagaz jarraitzea eskatzen dio irakasle bakoitzari, horretarako programazio didaktikoak eguneratuta eduki behar izan ditugularik. Lan itzela denbora gutxian!
Behin buletina martxan izanik, ebaluazio hezigarriko lan zehatzean murgilduko gara.

Bilera pedagogikoetan, gurasoei zer azaldu diezue?

Batzar pedagogikoetan, beste gauza batzuen artean, buletinaren aldaketaren berri eman dugu. Aldaketa honen oinarriak azaldu ditugu. EKI materiala erabiliz, ikasleak ezagutza batzuk barneratu behar ditu. Ezagutza horietatik abiatuta, errealitateagaz lotutako egoera batzuk planteatzen zaizkio eta ezagutza horiek transferitu egin beharko ditu. Laburbilduz, esan daiteke gure hezkuntza eredua ikuspuntu konpetentzialean oinarritzen dela, eta nahitaez ebaluazioak koherentzia izan behar du ikuspegi horregaz. Egoera honek aldaketa batzuk eskatu ditu eta horretan jardungo dugu ikasturte guztian zehar.

"Formakuntza honen helburua ebaluazio hezigarrian sakontzea da. Lehenengo urratsa eta baldintza buletina aldatzea da eta horretan ari gara"

Zein itxura izango du buletin berriak?

Kalifikazioak zenbaki zehatzetara joan beharrean, ikaslea bere prozesuan, ikas-arlo bakoitzean, zein mailatan dagoen kokatzen du, baina baita oinarrizko konpetentzietan egiten ari den ibilbidea ere. Alde batetik, arloka orain arte legez bere emaitzak emango ditu: ezagutzetan zein konpetentzietan ikaslearen maila grafikoki adieraziz. Bestalde, oinarrizko konpetentzia bakoitzaren garapena arlo desberdinetatik eratuko da.

Ebaluazio berri honek zein aldaketa dakar?
Hezkuntza ikuspegi aldaketa bat. Oraingo ereduak prozesuari begira jartzen gaitu eta ez bakarrik azken emaitzei.

"EKIgaz, ikasleak ezagutza batzuk barneratu behar ditu. Errealitateagaz lotutako egoerak planteatzen zaizkio eta horiek transferitu beharko ditu"

EKIren zein balorazio egiten duzue?
Edozein material berri sortzen denean gelara ekarri behar da. Liburua zehatz-mehatz jarraitzea ezinezkoa da. Ikastetxe eta irakasle bakoitzak lanketa hori egin behar du. Materiala berria denean gehiago kostatzen da. Ezagutu ahala hobekuntzak egiten joan gara. Dagoeneko urte batzuk pasatu dira EKIgaz, eta gure errealitatera ekarri dugula esango nuke. Hortik beste erronka batzuk sortzen dira. Arloen artean proiektuak aurrera ateratzea, esate baterako.

"Kalifikazioak zenbaki zehatzetara joan beharrean, ikaslea bere prozesuan, ikas-arlo bakoitzean, zein mailatan dagoen kokatzen du buletinak"

Zein aldaketa ekarri du?
Gure lan egiteko era dezente aldatu da. Lehen, batez ere, ezagutzekin lan egiten zen. Ezagutza horiek neurtu eta ebaluatu egiten ziren. Orain, konpetentziako egoera horietan ezagutza horiek erabiltzea eskatzen zaie ikasleei, hau da, ikasitakoa integratzea.

Oraindik badago konpetentziena guztiz ulertzen ez duen guraso despistaturik?
Guraso askok buletin hau hartuko dute eta gurago lukete 0-10 arteko nota bat jartzea. Denon aldetik eskema aldaketa bat suposatzen du honek, emaitza zehatzei baino gehiago ikas prozesuaren mailari begira jartzea, alegia. Gure garaiko sistema oso barneratuta dugu eta aldaketa kosta egiten da. Hala ere, sistema etapa denetan aldatzen ari da, eta ohituko gara apurka-apurka.

"Edozein material berri sortzean gelara ekarri behar da. Liburua zehatz-mehatz jarraitzea ezinezkoa da. Ikastetxe eta irakasle bakoitzak landu behar du"

EKI aldaketa handia izan da irakasleentzat?
Oso aldaketa gogorra izan da, bai. Lehenengo, metodologia eta materiala guztiz aldatzea eragin du. Tartean, maila ezberdinetako aldaketak izan ditugu. Berez, EKI material didaktikoa ohiko arloetarako sortu zen. Gorputz hezkuntza, musika, teknologia eta plastika kanpoan gelditu ziren. Azkenengo urteetan nahiko lan egin dugu arlo horiek ere EKIren eredura ekartzen. Buletin honegaz lortu duguna da denok hizkera eta metodologia bera erabiltzea. Bateratze bat ekarri du.

KIROLA

Jokatzeko baino, kirola jolasteko dela ulertzen dugu ikastolan. Horretarako, gure ikasleek aukera zabala dute. Multikirolean kirol ugari ezagutzen dituzte, ondoren, bakoitzak gura duena aukeratzeko. Unai Zamalloa Zubiaurre da ikastolako kirol arduraduna. Herriko kirol elkarteekin hartu-emana estutzeak duen garrantzia azpimarratu du Zamalloak.

Zein da Kurutziagako kirol eskaintza?

Momentu honetan, Ikastolan eskaintza zabala dago LH2tik aurrera. Hasteko, multikiroletako saioak daude LH2 eta LH-3ko ikasleentzat. Bertan, lehenengo, kirol jarduera antolatu eta bideratuak jasotzen dituzte. LH 3. mailakoek, dinamika berdinaren inguruan Ikastolan dituzten kirola egiteko aukerak ezagutu eta probatzen dituzte. Ikastolan, 4. mailan kirol aukeraketa egiterakoan, argi daukagu eskaintza anitza izan behar dela. Talde kirol bat eta banakako kirol bat, batera aukeratu ahal dituzte. Aurten, gainera, multikiroletan jarraitzeko aukera lantzen gabiltza. DBH 3-4ko Ikasleekin kirol eskaintza lantzen gabiltza, adin honetan kirol klubetan bajak egoten direlako. Beraz, eskaintza ondo aztertu eta landu behar dugu atal honetan. Oraingoz, eski irteera, rokodromoa, patinajea eta surf ikastaroak landu ditugu.

Multikirola LH 4. mailara arte zabaldu duzue. Zein planteamendu dago erabaki horren atzean?

Aurreko ikasturtean kezka berdina sortu zen Kirol Batzordean. Gainera, guraso talde bat ere gerturatu zen gugana, proposamena lantzeko asmotan. Hainbat batzar eta proposamen aztertuta eta landuta, aurrera egitea erabaki genuen. Bestalde, multikiroletako talde honen dinamikak eta helburuak aurrekoen antzekoak izan arren, beste helburu bat ere bazuela ikusten genuen: kirola egiteko aukera berriak ezagutzea. Adibidez, aurten rokodromoan aritu dira (laster beste 8 saio izango dituzte), eskubaloian ere aritu dira, igerilekura joango dira, patinekin saioak izango dituzte... Lehenengo urtea da eta eskertzekoa da guraso taldeak ematen duen laguntza. Aurtengo lehenengo talde honegaz lantzen ari garenak hurrengo urteetarako oinarria emango digu.

Zein pauso eman dituzue kirol ez lehiakorra bultzatzeko?

Eskola Kirolak duen Joko Garbiaren Dekalogoa geure egin dugu: umeak ez dira jolasten jendea entretenitzeko, ezta garaile izateko ere. Ondo pasatzeko eta kirolaren bitartez hezteko jolasten dira. Kirola egitea onura da denontzat, eta ez da neurtzen zenbat partidu irabazi ditugun edo zenbat tanto egin ditugun ikusita.

Entrenatzaileak aukeratzerakoan, zein irizpide erabiltzen duzue?

Erabiltzen dugun irizpide bakarra euskaraz aritu behar garela da. Besterik ez. Alde honetatik, abantaila bat dugu. Ikastolako entrenatzailerik gehienak bertako ikasle ohiak dira. Boluntarioak dira denak. Hori Ikastolan daukagun altxor handia dela uste dut.

3K programan sartuta zaudete. Zein da ekimen honen helburua?

Parte-hartzea sustatu guran, 3K proiektuan barneratu ginen. Zer da 3K programa? Prestakuntza-ekintza programa bat da, hiru Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak antolatua eta diruz lagundua. EUSKALITek koordinatzen du. Helburua EAEko kirol erakundeen kudeaketa hobetzen laguntzea da, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan oinarrituta. Hiru urteko programa da eta xedea da erakundeek, prestakuntza saio/tailerren bitartez eta hainbat ariketa praktiko eginez, beren antolamenduan Kudeaketa Aurreratuaren funtsezko alderdiak eta praktika onak ezagutzea eta garatzea. Momentu honetan azken pausoan gaude. 3 urtean 3k Programaren formakuntza eta betebehar guztiak burutu ditugu, eta, gainera, orain azken pausoan gaude buru-belarri: Kudeaketa Aurreratuaren Diploma jaso gura genuen, eta, horretarako, Euskalitegaz Kanpo Kontrastea burutu genuen. Kontrastea gaindituta, kudeaketa aurreratuaren diploma jaso genuen abenduaren 18an, Gasteizen.

Inguruko kirol taldeekin elkarlana bultzatzen ari zarete. Zein taldegaz?

Durangoko Klubekin harreman zuzena dugu. Futbolean, Kulturala-Athletic eta Ezkurdi. Saskibaloian, Tabirako. Eskubaloian, Ibaizabal. Pilotan, Durango Pelotazale Kluba. Errugbian, Durango Rugby Taldea. Atletismoan, Durango Kirol Taldea. Txirrindularitzan, Durangoko Txirrindularitza Taldea. Horrez gainera, herri kirolak eta xakea. Xakea Larrasoloeta Xake Taldeagaz lantzen dugu. Aurten lehenengo harremana izan dugu Uztai Gimnasia Erritmiko taldeagaz. Ikusten denez, Durangon hainbat aukera daude kirolean aritzeko, eta horretarako klubek egiten duten lana itzela da. Egia esan, Durangon aukera pila dago kiroletan aritzeko. Hori gure herriko aberastasun handia da, eta, horretarako, hartu-emana eta elkarlana beharrezkoak dira. Klubetatik aparte, kirol federazioekin ere harremanetan gaude. Adibidez, Bizkaiko Futbol Federazioagaz, herriko beste ikastetxeekin eta Ezkurdi Futbol Klubagaz, nesken futbola indartzeko eta lantzeko proiektua jarriko da martxan.

IBILALDIA 2020

“Ibilaldia denona da eta denok ekin behar diogu lanari eta jaiari, ikastoletan betidanik elkarrekin joan direlako biak”

Ikasle kopurua asko hazi da azken urteotan eta leku premia handia dute Elorrioko Txintxirri ikastolan. 2020ko Ibilaldian batutakoagaz Haur Hezkuntzako bigarren zikloko umeentzat (3-4-5 urte) eraikin berria egiteko asmoa dute. Oihana Etxanojauregi, Ezotzi Zuluaga, Enara Asua eta Olaia Larrauri Kurutziagako gurasoak eta Txintxirriko langileak dira.

Ibilaldia antolatzeak zer suposatu du Txintxirriko langile eta hezkuntza komunitatearentzat?

Ibilaldiari ekiteak beti suposatzen du erronka berri bat. Ikastola txikia da gurea eta jende asko behar da honelako ekitaldi bat antolatzeko, lan handia dakarrelako. Erronka berriei ekiten ohituta gaude, ordea, eta gogoz ekin diogu hirugarrenez Ibilaldia antolatzeari.

Zelan doaz prestaketak?

Lantalde batzuk (diseinua, jantziak...) iazko ikasturtean hasi ziren lanean, eta besteak (ibilbidea, kultura, publizitatea, komunikazioa...) ikasturte honetan hasi dira euren ibilbidea egiten. Giro aparta dago lantalde guztietan eta ideia mordo bategaz etorri dira guraso eta irakasle guztiak.

Ibilaldian jasotakoa zein proiektutara bideratzeko asmoa duzue?

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko umeentzat (3-4-5 urte) eraikin berria egiteko asmoa dugu. Ikasle kopurua asko hazi da azken urteotan eta leku premia handia dugu. Gainera, eraikin berria gure pedagogia ereduari begira diseinatzen ari gara. Arkitektura pedagogiaren zerbitzura jarri dugula esan genezake.

Txintxirrin zenbat familia eta langile zaudete?

Une honetan 38 langile daude Txintxirrin lanean, irakasleak eta zerbitzuetakoak batuta. Familiak, bestalde, 160 inguru dira. Aipatzekoa eta txalotzekoa da, beraz, dagoeneko ia 100 lagun ari direla lantaldeetan lanean Ibilaldirako prestaketetarako zereginetan.

Ibilaldiari aurre egiteko, beste ikastolen elkarlana ere garrantzitsua da. Ildo horretatik, zein plan-teamendu egin duzue Ibilaldi egunean laguntza jasotzeko?

Ikastola guztien elkarlana ezinbestekoa da, noski. Ibilaldi egunean 1.000 lagun inguru beharko dira zereginetan laguntzeko (txosnak, trafikoa, segurtasuna, garbiketa-lanak...) eta gurean ez gara hainbeste familia. Bestalde, elkarlan horrek Bizkaiko Ikastola guztien arteko harremana sendotzen lagunduko du. Urtero ikastola guztietatik Ibilaldira lantalde bat joanez gero, hobeto ezagutuko dugu elkar. Ikastola txikioi handien laguntzak hauspoa ematen digu.

Kurutziagako gurasoak izanda, eta Elorrio eskualdean egonda, elkartasun mezurik baduzue jendea animatu dadin?

Guztiei esango genieke Ibilaldia denona dela eta denok ekin behar diogula lanari eta jaiari, ikastoletan betidanik elkarrekin joan direlako biak. Gainera, Kurutziagaren eta Txintxirriren arteko harremana beti izan da berezia, gertutasunagatik eta Ibaizabalen partekatzen dugun proiektuagatik. Eskertuko diegu, benetan, Bizkai osotik laguntzera etorriko zaizkigun ehunka lagunei eta egun-pasa etorriko diren milaka euskaltzaleei.

Ibilaldiari buruz zeozertxo aurreratu daiteke? Ibilbidea, nobedaderen bat...

Ibilbideak 4,5 km inguru izango ditu eta orain dela gutxira arte erabili ezin izan den bide batetik igaroko da, Elorriokoak ez diren gehienek ezagutuko ez dutena. Era berean, beste gauza askoren artean, natura, kirola eta abentura uztartuko dituen gune ikusgarri bat ere egongo da, adin guztietako umeek izugarri gozatuko dutena. Azkenik, aurtengo zozketak ere nobedadeak ekarriko dizkigu.

IKASTOLEN ELKARTEA

“Ikasleei bere garapenean laguntzeko eguneroko ahalegina egiten dugu”

Ibaizabal ikastolan zuzendari aritu eta gero, Idurre Maortua Aiartzaguenak Ikastolen Elkartean dihardu orain. Hiru urte daramatza ikastolen ikuspegi orokorra lantzen.

Euskal Herriko ikastolek zer sare osatzen dute?

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak 111 ikastola biltzen ditu, 57.322 ikasle, 4.500 irakasle eta 500 langile. Hezkuntza eredu propioa dugu ikastolok. Ikasleei bere garapenean laguntzeko eguneroko ahalegina egiten dugu, izan daitezen euskaldun konprometituak, beren buruekiko konfiantzadunak, lankidetzan ikaskideak, erabaki hartzaile kritikoak, euskaldun eleanitzak, ekintzaile gogoetatsuak, jokabide kritikodunak, ikusmira zientifikodunak, orekaren zaintzaileak eta sortzaileak.

Materialgintzan zer ahalegin egin da? Zein emaitza izan ditu?

Azken urteetan materialgintzan hainbat esparru landu diren arren, ezagunena EKI egitasmoagaz landutakoa izan da. Konpetentzietan oinarritutako metodologia ardatz izanik, DBH4an hasi eta LH4raino zabaltzen den materiala da, erdigunean pertsona bera jartzen duena. EKIk tresnak eskaintzen dizkio irakasleari, ikastolak zehaztu duen Irteera profilerako ikaslea prestatu dezan. Momentu honetan, HH5 eta LH1 mailetan erabiliko den proposamen didaktikoa lantzen ari gara. Urtarrilean pilotatuko da era esperimentalean eta 2020-21 ikasturtean erabilgarri egongo da ikastolentzat. Material didaktikoaren kontzepzio berri bat da planteatzen duguna: ikasle bakoitzak erabiliko duen materiala eskaintzeaz gainera, indarra jarriko da irakasleak material horren oinarrian dagoen fundamentazio pedagogikoa ezagutu eta barneratu dezan, haurrari bere dimentsio guztietan garatzen laguntzeko. Hartara, irakasle bakoitza gai izango da bere behar eta testuinguruari egokien erantzuten dion materiala sortzeko. Haur Hezkuntzaren kasuan, emozioetan oinarritutako egitasmoa da landuko dena; besteak beste, ahozkotasuna eta emozioak lantzeko tresnak eskainiko dira. Lehen Hezkuntzarako sortutako materialak 3 oinarri nagusi izango ditu: erronka, irakurketa-idazketa prozesua eta matematikak.

Elkartasun kutxa ere badugu. Zein da helburua? Zein egoeratan erabiltzen da?

Ikastoletako familia guztiek egiten duten diru ekarpenagaz biltzen den funtsa da Elkartasun kutxarena. Guztira, 850.000 euro bildu eta banatzen dira urtero, beharrizana duten ikastolen artean. Elkartasun kutxaren helburua bikoitza da: egoera ekonomiko larrian dauden ikastolei laguntzea eta Ikastola Taldearentzat estrategikoak diren lerro edo ikastola berriak sortzen laguntzea. Gaur egun, nagusiki Nafarroako eremu ez euskalduneko ikastolek eta Seaskako ikastolek jasotzen dute Elkartasun Kutxaren laguntza.

Zein plan duzue mahai gainean segregazioari aurre egiteko?

Kezka handia sortzen duen gaia da atzerriko jatorria duten ikasleena, ez bakarrik gizartean, baita ikastoletan ere. Segregazioari aurre egiteko, zenbait bide lantzen ari gara, batzuk ikastoletan lantzekoak eta beste batzuk administrazioagaz eta gainerako hezkuntza eragileekin landu beharrekoak. Ikastoletan, Elaire izena eman diogun egitasmoa lantzen ari gara. Urrats eta Uribarri euskaltegiekin lankidetzan egindako programa honek atzerriko jatorria duten ikasleek euskara ikasi eta euskaraz ikasi ahal izateko gaitasuna eskuratzea du helburu. Herri mailan lantzeko proposamena da, herriko sare ezberdinetako ikasle etorkinekin. Planteatu dugun proiektuak herri horretan harrera plan bat egon dadin eskatzen du, eta hezkuntza eragileen inplikazioaz gainera, herriko udalen parte-hartzea ere eskatzen du. Beka sistema bat ere ezarri gura genuke ikastoletan, zailtasun ekonomikoa duten familientzat. Batzorde bat lanean ari da, gai honi zein aterabide eman ahal zaion ikusteko. Hala ere, atzerriko jatorria duten ikasleen eskolatzea herri apustu bat izan behar da gure ustez, eta, horretarako, hezkuntza eragile guztiok irtenbide integralak adostu behar ditugu segregazioaren arazoari aurre egiteko.

GUTARRAK

“Norberaren etxea baino hobeto zaintzen genuen ikastola”

Mila Salterain eta Lurdes Aranoa ikastolako sukaldeko langileak izan ziren. Kepa Onaindia, berriz, mantenuko arduraduna izan zen. Hirurak jubilatuta dauden arren, ilobekin egunero datoz ikastolara. Langileak eta gurasoak izan ziren hirurak. Hasierako urte gogorrak bizitzeaz gainera, proiektuaren sendotzea barrutik ezagutu zuten.

Noiz hasi zineten ikastolan lanean?

Mila: Sortu zenetik, Begoña Zarrabeitia sukaldariari laguntzen hasi nintzen. Gero, Begoñak utzi zuenean, sukaldari hasi nintzen, eta Lurdes jantokian.

Kepa: Ni geroago hasi nintzen, mantenu-lanetan.

Jantokian zenbat umerentzat prestatzen zenuten janaria hasieran?

Mila: Hasieran, 100 inguru ziren. Beste modu batera lan egiten genuen. Orain hile osorako menua ematen dute, baina sasoi hartan ez.

Lurdes: Etxean lez pentsatzen genuen menua, baina kopuru handiagoan.

Mila: Gogoan dut Askatasun Etorbideko harategi batean eskatzen genuela okela.

Ikastolaren hazkundea nabarituko zenuten menu kopuruan.

Mila: Jakina. 500 menu inguru ematera heldu ginen.

Lurdes: Aldaketa bat-batean gertatu zen.

Mila: Badakizu makarroiak zelan neurtzen genituen? Eskutxobete hartu eta erretilura botata hamarrentzat kalkulatzen genuen. Handik biderketa egiten genuen. Matematika hutsa zen, baina eskuz egiten genuen.

Lurdes: Batzuetan, abisatu barik ume mordoa etortzen zen. Baina sekula ez genuen inor jan barik utzi.

Sasoi hartan bihurrikeriaren bat egingo zizueten. Zuen sasoiko pure berdea ezaguna zen...

Mila: Pure berdeak beti izan du fama txarra!

Lurdes: Ogiari mamia kentzen zioten eta purea barruan sartu. Puri ernegatuta etortzen zen.

Mila: Ba, begira, estrategia horiek ere ikasi egin behar dira.

Lurdes: Batzuetan ezikusiarena egiten genuen. Horrelako ume bihurri batzuk oraindik gogoan ditut.

“Etxeko leiho bat apurtzea lakoa zen ikastolan leihoa haustea. Elkarlanean egiten genuen dena. Ikastola norberarena zela sentitzen genuen”

Ikastolako hasierako urteetan gurasoak izan zineten. Zelan gogoratzen dituzue urte haiek?

Kepa: Etxeko leiho bat apurtzea lakoa zen ikastolan leihoa haustea. Elkarlanean egiten genuen dena. Nik mundu berri bat ezagutu nuen. Gu eskolara joan ginenean beste eredu bat ezagutu genuen. Hau desberdina zen. Ekarpenak egin genituen, eta dena zen gure ardura. Margotu, errifak saldu... Ni diru-bilketa batzordean nengoen. Mantenuan ere laguntzen nuen. Inguru guztia ikastola aurrera ateratzeko ahalegina egiten zebilen. Norberaren etxea baino hobeto zaintzen genuen ikastola.

Mila: Batzordeko jendea oso behargina zen. Ikastola norberarena zela sentitzen genuen. Dena zegoen egiteko eta guk indarra genuen horretarako.

Kepa: Horiek denak eginda ere, ilegalak ginen. Dena kontra genuen. Horregatik, indar gehiago genuen aurrera egiteko. Pentsa, Leopoldo Zugaza Madrilera joan zen orduko ministro

bati autorizazio bat eskatzera, ikastola zarratu ez zezaten. Legalizazioa geroago etorri zen.
Mila: Gure umeak, 6 urtera arte, Iurretan ibili ziren, Goiuria ikastolan. Handik ikastolara etorri ginen.
Kepa: Zaldibarkoak ere etorri ziren ikastolara.

Zein lan egiten zuten gurasoek? Zelan antolatzen zineten zuen artean?

Mila: Ikastola guk geuk garbitzen genuen, txandaka. Jantokiko eguerdiko ardura ere gurasoon artean banatu genuen, hainbat urtez. Umeak zerbitzatzen genituen.
Lurdes: Gogoratzen dut behin, alaba jaioberria zela, garbiketa txanda egitera joan nintzela. Bularra ematen hasi nintzen eta estutu egin nintzen. Kepa inguruan zebilen margotzen, eta nire aurpegia ikusteagaz batera hauxe esan zidan: "Joan hadi atoan etxera". Nire txanda berak egin zuen.

"Umeak irteten direnean, ez dute etxera joan gura. Horrenbeste leku dago jolasteko! Erreka berri hori ere famatua egiten ari da"

Zelan gogoratzen duzue lehengo ikastola?

Kepa: Hazkunde handiena barrutik ezagutu genuen. Adreiluak banan-banan jartzen direnez, konturatu barik gertatu zen.
Lurdes: Lan egiten genuen, baina ondo pasatu ere bai. Sarritan umeak ezkatzera etortzen ziren eta psikologo lanak egiten genituen. Gogoan dut haurtzaindegia ipini zuten sasoia. Txikiek zer ondo pasatzen zuten ikusten genuen. Milari esaten nion: "Banoa haurtzaindegiko umeak ikustera", eta buelta bat ematen nuen. Maribi Estankona irakaslea asko jolasten zen umeekin. Hura ikustea zoragarria zen.

Gauzak asko aldatu dira?

Kepa: Ikasturte amaierako jaialdia, esate baterako, asko aldatu da. Lehen, buruko min itzela izaten zen niretzat. San Juan sua egiten zen. Ikasturteko paperak batu eta surtara botatzen zituzten. Sua pizterakoan paperek hegan egiten zuten. Inguru guztia paperez josita gelditzen zen. Hori konpontzeko, paletak jartzen hasi ginen paperen gainean. Sua geroago eta handiagoa egiten zen. Orain pentsaezina izango litzateke su hori piztea.
Mila: Lehen, jaialdia egokitzen zitzaien ikasturteko gurasoek oilaskoak erretzen zituzten. Tortillak eta postrea ekartzen ziren. Txorizoak egosten ziren. Pedrin Belarrek-eta makina bat oilasko erre zituzten.
Kepa: Ikastolak gaur egun duen neurriagaz ezinezkoa da guk eramaten genuen moduan eramatea. Lan asko profesionalizatu egin dira.

Kepa, Gaztainerre antolatzen jarraitzen duzu.

Inork ez du bere burua aurkeztu ikasteko, eta aurten ere egin dut. Ahal den artean egingo dut.

Orain aitita-amama lez etortzen zarete ikastolara. Zelan ikusten duzue?

Lurdes: Zoragarri. Barrua eta kanpoa desberdin daude, baina ondo. Obrak hasi zirenean, kanpo espazioan jesarlekuak egiteko eskatu nion Urko Rodriguez zuzendariari. Ilobekin etorri eta ez geneukan jesartzeko lekurik. Orain bai, jartzeko leku ikusgarria dugu.
Kepa: Poztu egiten gara hau ikusteaz.
Lurdes: Eraikin berrian txikitxoak ederto daude. Eta irteten direnean, ez dute etxera joan gura. Horrenbeste leku dago jolasteko!
Mila: Erreka berri hori ere famatua egiten ari da. Umeak gustura ibiltzen dira.

Bikain
bai
ibaizabal
KURUTZIAGA IKASTOLA BIZITZEKO HEZI
ikastolen elkartea
HERRI ONURAKO KOOPERATIBA